

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zuen ingurua aprobetxatuta

- ✓ Eta ingurukoak zer? Alokairuan bizi dira ala etxea erosteko erabakia hartu dute? Nolakoa izan da etxebizitza lortzeko prozesua: neketsua eta luzea, ala erraza eta arazorik gabea? Prestatu ingurukoei (famiakoei, lagunei, lankideei...) egiteko moduko inkesta bat etxebizitza lortzeari buruz: Erostearen ala alokatzearen aldekoak dira? Zergatik? Lortzeko bidean daude oraindik? Kasu horretan, zer arazo dituzte edo aurreikusten dituzte? Jakina, inguruko horiek euskaraz moldatzeko gai badira, askoz hobea, den-dena euskaraz egiteko aukera izango duzu-eta! Behin inkestak eginda, datuak bildu eta komentatu ikaskideei zure ondorioak. Ziur oso ideia interesgarriak aterako direla!

Internet aprobetxatuta

- ✓ Hona hemen gaiaren inguruko elkarriketa pare bat. Baietz bat ikusi, datu eta ideia garrantzitsuenak bildu eta informazioa ikaskideei kontatu! Bideo hauek gaiari sakontzen aukera eskainiko dizute.
 - [Bideoa](#). "Hego Euskal Herrian 30 urterekin emantzipatzen dira gazteak"
 - [Bideoa](#). "Etxebizitza erosi ala alokatu?"
- ✓ Emantzipatzearen eta etxebizitza alokatu edo erostean inguruko bierreportaje labur proposatuko dizkizugu oraingoan. Ikaskide batekin hitz egin, bideo bana ikusi, informazio garrantzitsuena apuntatu eta, azkenik, elkarri eman informazio horren berri. Euskara praktikatzarekin batera, datu interesgarriak jasoko dituzu!
 - [1. erreportajea](#). "Gero eta jende gehiagok alokairua aukeratzen du"
 - [2. erreportajea](#). "EAEn, 30 urtetik beherako gazteen % 82 gurasoen etxean bizi dira"
- ✓ *Hegoaldeko txokoa* blogean, gaiaren inguruan hainbat [iritzi](#) idatzi dituzte irakurleek. Irakur itzazu arretaz eta pentsatu: zeinekin zaude ados?, zeinekin ez?, zergatik? Eta, jakina, animatzen bazara, eman zeuk ere idatziz zeure iritzia.
- ✓ Ba al dakizu nolako hipotekak eskaintzen dituzten finantza-erakundeek? Zer interes-tasa ordaindu behar da maileguaren truke? Zer abal eskatzen dute? Zer erakundeek eskaintzen ditu kreditu merkeenak? Eta garestienak? Egin dezagun, bada, ikerketa-lan. Sartu erakundeen webguneetan eta konparatu erakunde bakoitzaren baldintzak. Lana amaituta, eman ikaskideei ikerketa konparatiboan ateratako ondorio nagusien berri. Hona hemen finantza-entitate nagusien webguneak:
 - [Laboral Kutxa](#).
 - [Kutxabank](#).
 - [Rural Kutxa](#).